

PEIO MONTEANO

«Enperadoreak 1521eko lezioa ikasi zuen»

Soziologoa eta historian doktorea Nafarroako Unibertsitate Publikotik, Nafarroako Artxibo Nagusiko goi teknikaria da Monteano. Iruñean jaio eta Atarrabian bizi da, 1999an bertoko alkate izan zen EA-Atarrabia taldea ordezkaturaz. Hamar urte daramatza bete-betean Nafarroako konkista iker-tzen eta lan esanguratsuen *La guerra de Navarra (1512-1529). Crónica de la conquista española* du, 2010ean Pamielak argitaratua.

Nafarroako konkistari buruzko azken urteetako berrikusketa lan sakonena dela esan genezake. Kronista eta historialari klasikoen ifrentzua gainetik kendu eta zuzeneko iturriak ditu oinarri, batez ere Nafarroako Artxibo Nagusikoak eta Simancaseko artxibokoak. Monteanoren liburuan historia aseptikoa arnasten da, gertakizun konkretuen bidez klabeak ematen dizkio irakurleari, berak atera ditzan ondorioak.

Liburuak iradokitzen duenez, konkistak gora-behera asko izan zituen. Data klabea 1521ekoa izan zen –Noaingo bataila–, hortik aurrera “bigarren konkista” bat hasi zen, gogorragoa, kontrol politiko zorrotzagoarekin, beste protagonista batzuekin... Bestalde, Espainiako ejertzitoak inbaditu zuen Nafarroa, ez Gaztelakoak edo Aragoakoak; hau da, Nafarroak ez zuen Espainiaren sorreran parte hartu, baizik eta bertara txertatu zuten “inposaketaren eta bortxaren bidez”. Aitzitik, Nafarroan oraindik ez zegoen identitate nazional sendorik, leinuenganako fideltasunak agintzen zuen batez ere.

“Momentua ezin egokiagoa zen asanbladak²² zehaztu zezan zein ziren nafarrak eta zein ez: aita-ama nafarrak zituzten eta bertan bizi ziren haiek. Segidako egunetan, diputatuek Koroak azken hilabe-

teetan egindako laidoak (foruak urratzea) aurkeztu zituzten. Konpondu ez ziren laidoen artean, urteen poderioz errepikakor bihurtu ziren batzuk zeuden: epaimahai nafarretan epaile atzerritarrik ez egotea, ejertzitoek egindako kalteak indemnitzatzea, tropek egindako gehiegikeriak amaitu zitezela, eta abar. Eta harrigarriro, sakontasun politiko handiagoa zuen eskaera bat: Gorteen exijitu zuten Nafarroa itzul zitezela antzina bereak izan ziren lurraldeak, ‘bereziki –zioten– Ebrotik Nafarroa aldera zeuden tokiak’. Sonsieraz ari al ziren? Edo Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia ere aldarrikatzen ari ziren? (...)

1521eko maiatzeko matxinada arte gertatutakoaren lezioa ikasirik, enperadoreak bere boterea handitu nahi zuen. Pentsatzen zuen Erreina mantenduko bazen, gobernu on bat eta justizia zuzen bat egon behar zutela. Horretarako, Errege Kontseiluan zuen eragina handitu behar zuen, eta erakunde hori alderdien artean zeuden borroketatik atera. Antzemanik, nafarrek, lehenik eta behin euren foruak errespetatzea zin eginaraziko zutela –foruek ez zuten uzten nafarra ez zen beste epailerik egoterik–, erregeordeari argibideak eman zizkion hori eragozteko, askatasun gehiago nahi baitzuen bere interesekin bat zetorrena erabakitzeke. (...)

1521eko udazkenean, Nafarroako iparraldean mini-estatu legitimista bat sortzearekin batera, errepresioa are gogorragoa izan zen. Amaiur berreskuratzeak baino ez zuen animatu enperadorea barkamen orokorra aldarrikatzera, nahiz eta, legitimista nabarmenenak salbuetsi zituzten. Aukeratu berria izan zen Aita Santuak, Erromara joan aurretik, bere apopilo izandakoari²³ amnistia eskatu zion Erreinitik erbesteratuta zeuden mila erdi agramontarrentzat, ez baitzuten frantsesak ekartzeko konspiratu. Gainerakoak, prelatuaren ustez, zigortu egin behar ziren”.

22- 1513ko martxoko Nafarroako Gorteen ari da.

23- Adrian VI.a Utrechtekoak bere ardurapean izan zuen Karlos printzea hamar urtez.